

**DIRULAGUNTZA-DEIALDIA  
HUTSIK DAUDEN LONJAK  
AKTIBATZEKO  
2026 / 2027**

## **1. ARRAZOIEN AZALPENA**

Bilbao Ekintza EPEL Bilboko Udalaren erakundeak hiriaren garapen ekonomikoa sustatzen eta babesten du, herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko.

- Enpresak sortzea eta haztea errazten dugu, merkatu berrietarako sarbidea bultzatuz, batez ere hiriak zehaztutako espezializazio adimenduneko eremuetan: zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak, ekonomia digitala eta turismoa.
- Merkataritza-jardueraren garapena sustatzen du, kanpoko proiektu eta ekimenen bultzatzaile izateari uko egin gabe, atzerriko inbertsioari Bilboko ateak irekiz.
- Gazteen garapen profesionala bultzatzen du, talentua eta sormena balioetsiz.
- Ekitaldiak eta turistak erakartzen ditu hirira, euskarri eta arretako zerbitzu onenak eskainiz, hiria posizionatzen eta aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzeko.

Helburu hori egituratzeko, Merkataritza Atala du, eta horren helburua da saltoki txikien lehiakortasuna hobetzeko lan egitea. Horretarako, prestakuntza zerbitzuak eta lehiakortasuna hobetzeko ekintzak eta programak eskaintzen ditugu. Hutsik dauden lonjen aktibazio komertziala bultzatzea planteatzen da, erabiltzen ez diren lokalen optimizazioa eta merkataritza-ekintzailatza integratuz.

Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza EPELen bitartez, programa honen lehenengo deialdia jarri zuen martxan 2022an, Alde Zaharreko merkataritza suspertzeko eta lonja itxiak mobilizatzeko, horretarako laguntza batzuk emanez. Deialdiak arrakasta handia izan zuen; horregatik, Bilbo Zaharrera, San Frantziskora eta Zabalara ere zabaltzea erabaki zen.

Oraingo honetan, azken 4 urteetan itxieren ondorioz merkataritza-lokalen erabilera murriztu duten merkataritza-ardatzetara zabaldu ditugu laguntzak.

Hauk dira merkataritza-ardatz horiek:

Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako zonan antzeman dugu badela merkataritza-eremu bat non lonjak etengabe itxi diren; hortaz, eremu hori suspertu beharra dago, zona horri merkataritza-bizitza emateko. Hauexek dira aukeratutako kaleak: Bailen, Maiatzaren Bia, Castillo Jenerala, Hernani eta Lamana. Kale horietan 174 merkataritza-lokal daude, eta % 49 itxita daude. Elkarren hurbil dauden kaleak izanik, uste dugu itxitako lokalak aktibatzeak egoera lehengoratu eta negozio berrien ezarpenari mesede egin dakiokoela.

Irala inguruan, 205 lokal aurkitu ditugu, eta horietatik 63 hutsik daude (% 31). Irala kalean, zehazki, guztira 64 lokal daude, eta horietatik 19 hutsik daude.

2. barrutian, lokalen % 30 hutsik daude, eta Uribarri kalea, Panera plaza, Castaños eta Uriortu kaleak dira azpimarratuko ditugunak, horietan 52 lokal baitaude irekitzeko aukerarekin.

Kontsumitzaileen portaera-aldaketek –bereziki, plataforma teknologikoen bidezko erosketen igoerak– eragindako egungo egoerak agerian uzten du gertaera horiek eragin negatiboa izan dutela hurbileko merkataritza-jardueretan.

Merkataritzarik gabeko hiria hotz, pobre eta segurtasunik gabeko eremu bihurtzen da. Horrela, erabilera desberdinak uztartzen dituen, zerbitzuak eskaintzen dituen, bizi-kalitatea ematen duen eta aberastasuna zein segurtasuna sortzen dituen hiri-espazioaren funtzioa galtzen du. Gainera, periferiako merkataritza-guneetan oinarritutako eredurantz jotzen du, eta horrek autoaren nagusitasuna areagotzen du.

Jarduera honen esparruan, eta inolako jarduerarik baztertu gabe, beheko solairuan dauden lokalak aktibatzekeo estrategia osagarri gisa, artisau-sektoreak gauzatutako merkataritza-jarduerak, diseinua eta nortasun propioa duten beste ekimen batzuk bultzatzea diseinatu da, nolabait zonaldeen jatorrizko jarduera berreskuratzeko.

Horrela, kale eta jarduera horiek lehenetsiz, helburu gehigarri bat lortu genuen: interes bereziko zona-marka batzuk sortzea, bai biztanle egoiliarrentzat, bai hiriko bisitarientzat, haien erakargarritasuna handituz eta mix bat osatuz gainerako merkataritza- eta ostalaritza-jarduerekin. Horrelako saltoki eta zerbitzuen kontzentrazioak pertsona-trafiko handiagoa sortzen du, merkataritza-jarduera atzeraelikatuz eta bezeroarentzako erosotasuna handituz, guztia hiriaren eta hirigintzaren mesedetan.

Horretarako, laguntza horien oinarrietan ezartzen denez, aipatutako jarduerekin zerikusia duten jarduera ekonomikoek (produktuekin nahiz zerbitzuekin lotutakoek), bai eta inguruetakoa merkataritza-mixa garatzeko interesgarriak izan daitezkeen beste jarduera batzuek ere, puntu gehigarriak izan behar dituzte ekimenaren balorazioan.

Helburu horrekin, laguntza ekonomikoak eskainiko dira enpresa-ekimenak abian jartzea ahalbidetzeko; modu horretan, alokairutik eta merkataritza-lokalen erabileratik eratorritako gastuak ordaintzeko laguntza izango dute.

Bilbao Ekintzak hiriko saltokien mapa bat egin du, merkataritza-ardatzak ezarriko dituen, hartara, eremu horietan lan egiteko eta hutsik dauden lokalen jarduera sustatuko duten programak ezartzeko.

Azaldutakoaren arabera, Bilbao Ekintza EPELeko Administrazio Kontseiluak 2026ko martxoaren 27ko bilkuran onartu du lonja hutsak aktibatzeke zuzeneko laguntza ekonomikoak eskuratzeko deialdia.

## **2. ESPARRUA ETA XEDEA.**

Bilbao Ekintza EPELeke, Laguntza Programa honen bidez, lonja hutsak aktibatzea ahalbidetu eta sustatu nahi du, azken 4 urteetan merkataritza-lokalen erabilera murriztu den merkataritza-ardatzetan. Horretarako, enpresa-ekimenak abiarazi nahi ditu, merkataritza-lokalak alokatzeko laguntza ekonomikoak emanez, deialdi honetan aurreikusitako baldintzetan.

Lokalak sarbide zuzena izan beharko du bide publikotik. Ez da solairuarlean kokatuko, ezta sotoan ere. Horrez gain, sarrera nagusia edo aurrealde komertziala Arrazoen Azalpenean identifikatutako ardatz komertzialetako kaleren batean izan beharko du. Hona hemen zein diren:

- Bilbo Zaharrean, San Frantziskon eta Zabalan: Maiatzaren Biko kalea, Hernani, Castillo Jeneralaren kalea. Lamana eta Bailen
- Iralan: Irala kalea.
- 2. barrutian, kale hauetan: Uribarri, Panera plaza, Castaños eta Uriortu

Identifikazio hori hiriko Merkataritza Ardatzen Azterketaren eta Lokal Hutsen Analisiaren datuen arabera egiten da. Oinarrien indarraldian programa hau hiriko beste leku batzuetan aplikatzea komeni dela erabakitzen bada, identifikatutako kaleak zabaldu ahal izango dira, betiere egokitzat jotzen bada eta zabalitze hori justifikatzeko barne-txostena oinarri hartuta.

Zabalkuntza hori deialdi honen hamabosgarren atalean aurreikusitakoaren arabera ezarriko da, eta Oinarri hauei emandako zabalkundearen antzeko publizitatea egingo da, espazioak zabaltzeko eranskin espezifiko batean sartuta.

## **3. ONURADUNEN BETEKIZUNAK**

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izango dira nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak, pertsona fisikoak eta ondasun-erkidegoak eta legez eraturako pertsona juridikoak, honako kasu hauetan sartuta badaude:

## a) Titularra izatea:

1. Jarduera ekonomiko berri batean, edo
2. Saltoki berri bat irekitzea, lehendik Bilbon zegoen saltokia lekualdatzea izan gabe. Dagoeneko udalerrian beste negozio bat duten eta establezimendu berri bat irekitzen duten enpresek irekita eduki beharko dute jarduera egiten ari ziren aurreko lokala, eta gutxienez establezimendu berriaren dirulaguntza jasotzeko epean mantendu beharko dute, edo
3. Beste mota bateko lokaletan egiten zen jarduera ekonomikoa.
4. Oinarri hauekin bateragarria den programa publiko osagarri batetik datorren jarduera ekonomikoa, atal honetako 2. puntuaren ezarritakoa betetzen duena.

## b) Baldintza hauek betetzea:

1. Enpresak sortzeko oinarrizko prestakuntza egin izana eta negozio-plana egiteko beharrezko aholkularitza jaso izana Bilbao Ekintza EPELen Enpresa eta Enplegua Sustatzeko Arloaren bidez, bai eta Bilbao Ekintza EPELeko teknikarien oniritzia jaso izana ere.
2. Lokala bigarren oinarrian zehaztutako espazio-eremuan kokatuta egotea.
3. Jarduera ekonomikoa egingo den lokalaren gaineko errentamendu-kontratuaren titularra izatea, eta errentamendu-kontratu hori 2026ko urtarrilaren 1a baino geroago sinatzea.
4. EJZn alta ematea lokal horretan, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera.
5. Enpresa txiki bat izatea:
  - a. Aktiboak edo eragiketa-bolumenak 10 milioi euro baino gehiago ez izatea.
  - b. Plantillaren batez bestekoa 50 enplegatu baino gehiago ez iristea.
  - c. Balantze orokorra 10 milioi euro baino gehiago ez izatea.
6. Aurrez adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka % 25eko edo gehiagoko partaidetza ez izatea.
7. Onuraduna ezin izango da lokalaren jabea izan. Era berean, lokala ezin izango da pertsona juridiko eskatzaileen ezein bazkideren jabetzakoa izan.

8. Onuradunak ez du lokalaren jabetzarekin (ezkontidea barne) bigarren mailara arteko ahaidetasunik izango.

9. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla automatikoki egiaztatuko du Bilboko Udalak, datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez, emate-ebazpena eman eta ordainketa egin aurretik. Hala ere, eskatzaileak egiaztapen horri uko egin ahal izango dio, eta, orduan, bere kabuz aurkeztu beharko ditu egoera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

10. Egunean izatea dirulaguntzen arloko itzulketa-betebeharrak.

Ofizios berrikusiko da ez duela zerga-zorrik, ezta Bilboko Udalarekin hartutako dirulaguntzak itzultzeagatik ere.

11. Zigor- eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez egotea, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne.

12. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako gainerako egoeretako batean ere ez egotea, dirulaguntzen onuradun izateko.

13. Berariaz kanpo geratzen dira elkarteak, klubak, fundazioak eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, langile autonomo laguntzaileak, ondare-sozietateak eta sektore publikoko erakundeak.

#### **4. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KONTZEPTUAK**

Dirulaguntzak merkataritza-lokalak alokatzeko gastuetarako izango dira.

#### **5. LAGUNTZEN ONURAK ETA ZENBATEKOAK**

Laguntza Programa honen barruan honako onura hauek aitortu ahalko dira:

1. Zerbitzuak ematea:

Laguntza eskatu ondoren, jarduera ekonomikoen sustatzaileek, gainera, Bilbao Ekintza eta EPELen prestakuntza eta aholkularitza jaso ahal izango dute, enpresa-kudeaketa hobetzen laguntzeko, bai eta kasu bakoitzean finantzaketa-iturri egokienak identifikatzen eta bilatzen laguntzeko zerbitzu bat ere.

## 2. Dirulaguntzak:

Emandako laguntzak itzuli beharrik gabekoak izango dira, eta kokatuta dagoen kalearen arabera zehaztuko da zenbatekoa:

Alokairuaren kostuaren % 50, ordaindu eta lehenengo hamabi hilabeteetan, lokal bakoitzeko 400 euroko hileko muga ezarrita. Lokalaren alokairua ordaintzeko gabealdia izanez gero, ordainketa enpresak jabeari lehen hilekoa ordaintzen dion unean hasiko da. Ez dira diruz lagunduko zergak, tasak, BEZa, lokalen fidantza eta higiezinaren kudeaketaren gastuak.

Laguntza eman ondoren, onuradunarekin zerikusirik ez duten eta jardueraren hasiera zailtzen duten inguruabarrak gertatzen badira, Bilbao Ekintza EPELe laguntzaren baldintzak aldatzea erabaki ahal izango du, egoera berrira egokitzeko.

## **6. LAGUNTZAK EMATEKO ETA ORDAINTZEKO PROZEDURA**

### **6.1. Eskaerak aurkeztea.**

Dirulaguntza hauen deialdia lehia sinpleko erregimenean egiten da, eta, beraz, sarrera-ordenaren arabera ebatziko dira. Prozedura interesdunek aurrez eskatuta hasiko da. Horretarako, eskaera aurkeztu ahal izango dute oinarri hauen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta indarrean dagoen aldi osoan zehar, aurrekontu-esleipena agortzen den arte.

Dirulaguntza-eskaerak telematikoki izapidetu beharko dira, helbide elektronikoen bidez: [comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus). Bitarteko horiek erabiltzeko aukerarik egon ezean, eskatzailea Bilbao Ekintza EPELekin harremanetan jarri beharko da, izapidetzeko beste modu bat adosteko.

Interesdunek eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia guztiz onartzea ekarriko du.

6.5 atalean aurreikusitakoarekin bat etorriz, eskabideak aurkeztutzat joko dira eskatutako dokumentazio guztia aurkezten denean eta horren alderdirik zuzendu behar ez denean.

## 6.2. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Oro har, oinarri hauetan ezarritakoari jarraikiz laguntzak eskuratu ahal izateko, sustatzaileek eta enpresek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Eskaera: okupatutako lokal bakoitzeko eskaera bat egon beharko da; nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, bazkide guztiek sinatu beharko dute. Pertsona juridikoen kasuan, haren ordezkaritza esleituta duenak aurkeztuko du eskaera. (I. eranskina. Eskabidea).
- b) Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek jasoko dituenak:
  - i. Ezagutzen eta onartzen dituela laguntzen oinarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak, eta egiaztatzen duela egiazkoak direla nortasun juridikorik gabeko ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, pertsona juridikoen eta/edo haien ordezkariak eskaera-formularioetan emandako datuak.
  - ii. Enpresa txiki gisa kalifikatzeko beharrezko baldintzak betetzen ditu (gehienez 50 langile).
  - iii. Saltokia irekitzeak ez duela esan nahi udalerriko beste zona batzuetan lehendik zegoen jarduera bat lekuz aldatu denik, edo, hala badagokio, jarduera hori beste lokal-mota batean egiten zenik.
  - iv. Ez duela ahaidetasun-harremanik lokalaren jabetzarekin, haren ezkontidearekin eta/edo aurreko ahaideekin edo ondorengoekin.
  - v. Onuraduna ez dela lokalaren jabea. Halaber, lokala ez da pertsona juridiko eskatzaileen (sozietateak) ezin bazkideren jabetzakoa.
  - vi. Zenbait enpresak lokala partekatzen badute bakarrik: Eskaeraren errentamendu-kontratuaren datuak (titularren izena, azalerako erabilera m<sup>2</sup>-tan, dagokion kuota BEZik gabe eta bakoitzaren sinadura. Aldeko ebazpena emanaz gero, onuradun bakoitzari ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, onuradun bakoitzaren metro koadroen zati proportzionala kalkulatu da.
  - vii. Ez dagoela zigor- eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ere, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne.

- viii. Egunean dituela zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, Egoitza Fiskalarekikoak eta Dirulaguntzak Itzultzearekikoak, eta konpromisoa hartzen duela hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko, baldin eta Udala datuetara sartzeari uko egiten badio.
  - ix. Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean dirulaguntzen onuradun izateko aurreikusitako gainerako egoeretako batean ere.
  - x. Ez dagoela Udalak datuak egiaztatzearen aurka eta horretarako baimena ematen duela.
  - xi. Ez dela izan diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen onuraduna, deialdi honen 6.6 atalean jasotako baldintzetan.
- c) Bilbao Ekintzak proposatutako negozio-plana edo antzeko eredu. Eskatzaileak negozio-plana beste erakunde batean egin badu, Bilbao Ekintzako Enpresa eta Enplegua Sustatzeko Arloak ere onartu beharko du.
- d) Beste agiri batzuk:
- i. Lokalaren alokairu-kontratuaren kopia, lokalaren metro karratu guztiak jasotzen dituen. Edo, bestela, lokalaren metro koadroak jasotzen dituen dokumentu baliaduna.
  - ii. Jarduera Ekonomikoen Zergan (JEZ) egindako alden eta bajeen gaineko egiaztagiria eguneratua izatea.
  - iii. Bizkaiko Foru Aldundiaren 200 ereduaren 2. orrialdea (Sozietateen gaineko Zerga) edo enpresa txiki bat dela adierazten duen agiri baliokidea.

Eskatutako dokumentazio guztia oinarri hauetan ezarritako epeetan aurkezten ez bada, edo eskatzaileak 3. kapituluko b) 7 atalean (betekizunak) agertzen diren erakundeekiko zorrak baditu, Bilbao Ekintza EPELek akatsak zuzentzeko eskatuko dio, eta gehienez ere 10 eguneko epea emango dio. Egoera hori erregularizatzen ez bada, eskaera artxibatu ahal izango da, eta eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Espedientea beste izapiderik gabe artxibatuko da, eta Bilbao Ekintza EPELek ez du eskaera horri buruzko berariazko ebazpenik eman beharrik izango.

Era berean, Bilbao Ekintza EPELek beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du eskatzaileak laguntza-programa honetan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

### 6.3. Eskaeren balorazioa

Laguntza-eskaera baliozkoa izan dadin, proiektuak gutxienez 75 puntu lortu beharko ditu 100 puntutik, honako balorazio-irizpide hauen arabera:

- a) Negozio-plana (gehienez 40 puntu). Enpresa-proiektuaren heldutasun- eta analisi-maila baloratuko da.
  - i. Negozioaren deskribapena: 20 puntu.
  - ii. Marketing-plana: 10 puntu.
  - iii. Inbertsioen eta finantzaketaren azterketa: 10 puntu.
- b) Negozioaren izaera berritzailea (gehienez 15 puntu).
  - i. Negozio-ereduaren berrikuntza-maila: 5 puntu.
  - ii. Teknologia berrien erabilera-maila kudeaketan: 5 puntu.
  - iii. Sustapenerako eta merkaturatzerako teknologia berrien erabilera-maila: 5 puntu.
- c) Laguntza-eskaeraren xede den lokalaren kalea dagoen jarduketa- eta garapen-eremuko mix komertziala hobetzen laguntzea (15 puntu).
  - i. Eremuan lehendik ez dauden jarduerak, bete gabeko eskaerei erantzuten dietenak: 5 puntu.
    - a. ii. Inguruan daudenen osagarri diren jarduerak: 5 puntu.
    - b. iii. Inguruko gainerako jarduerekin alderatuta, jardueran elementu bereizgarriak sartzen dituzten jarduerak: 5 puntu.
- d) Arrazoiaren azalpenaren aipatutako jarduerekin lotutako jarduera (gehienez 15 puntu).
  - i. Sustatu beharreko jardueren artean badago: 15 puntu.
  - ii. Ez badago: 0 puntu.
- e) Jardueren kasua (gehienez 15 puntu).
  - i. Sortu berria bada: 15 puntu.
  - ii. Lekualdatutakoa bada: 10 puntu.
  - iii. Beste bat irekitzen bada, udalerrian dagoen bat lekuz aldatzea ez dakarrena: 5 puntu.

#### 6.4. Deialdia izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna. Prozedura

Deialdi honetan instrukzio-organo bat dago, eta Bilbao Ekintza EPELen Merkataritza Atalari atxikitako teknikariek osatzen dute. Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, ofizioz egingo dituzte datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko egokitzat jotzen dituzten jarduketa guztiak, eta horiek oinarri hartuta egin beharko da ebazpen-proposamena.

Halaber, hura da beste edozein agiri edo informazio eskatzeko eskumena duen organoa, beharrezkotzat jotzen badu, eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

Dirulaguntza-eskaerei dagokienez, aurkezpen-egunaren eta -orduaren arabera izapidetuko dira, betiere, zuzentzeko eskatu behar ez den kasuetan. Zuzenketaren bat egin behar bada, eskaera modu egokian osatzeko dokumentazioa aurkeztu den eguna eta ordua hartuko dira kontuan eta, edonola ere, deialdirako eskuragarri dagoen kredituaren mugaraino, eta erabilitako kredituaren arabera.

Onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla kontuan hartuta soilik emango dira, eta ez da beharrezkoa izango eskaeren arteko konparaziorik edo lehentasunik ezartzea.

3. artikuluan ezarritako aurrekontu-zuzkidura agortuz gero, ez litzateke laguntza berririk emango, eta ezetsi egingo lirarteke ebazteke dauden eskabideak.

Eskabideak ebaluatu ondoren, ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio dirulaguntza emateko proposamena zehaztuko duen txostena. Txosten horretan, dirulaguntzen onuradunak eta proposatutako zenbatekoak adieraziko dira, bai eta eskaerak ezesten diren kasuetarako arrazoiak ere.

Bilbao Ekintza EPELeke Zuzendaritza Nagusia da prozedura ebazteko eskumena duen organoa, eta, gehienez ere, hiru hilabeteko epea izango du ebazpen bat emateko, eskaerak aurkezteko epea guztiz amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Gainera, aurkeztutako dirulaguntzen eskaera guzti-guztien inguruko ebazpen arrazoitu egokia eman beharko du.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori guztia, emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen argitaratzearen kalterik gabe.

Gehieneko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, erakunde interesdunek dirulaguntza emateko eskaera administrazioaren isiltasunaren bitartez atzera bota dela ulertu behar izango dute.

Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, bi hilabeteko epean, era berean.

### **6.5. Ordaintzeko prozedura eta justifikazioa.**

Alokairurako laguntzen kasuan, dirulaguntza zertarako eman zen behar bezala egiaztatu ondoren, dirulaguntza emateko ebazpenean onartutako zenbateko osoaren % 50 ordainduko da, onuradunak emandako banku-kontuan transferentzia eginez. Ireki eta 12 hilabeteko epea igaro ondoren, edo gabealdi bat izan ondoren, lehen ordainketa egin zenetik 12 hilabeteko epea igarotakoan, eta jarduerak funtzionatzen jarraitzen duela egiaztatu ondoren, dirulaguntzaren gainerako zenbatekoa ordainduko da. Hori guztia, aurrez eskaera eginda eta urtea amaitu eta bi hilabeteko epean justifikatu ondoren.

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Erakundearen eratze-eskrituren kopia (hala badagokio) eta IFZ.
- Dagozkion fakturak eta horien ordainagiriak.

Fakturen ordainketa banku-agiri baten bidez egiaztatu beharko da, dela transferentziaren edo helbideratzearen egiaztagiria, dela antzekoa.

- Bankuko datuen fitxa, ereduaren arabera.

Fakturak eta ordainketa-egiaztagiriak ezingo dira izan laguntzak eskatu baino lehenagokoak. Faktura horiek ezin izango dira aurkeztu beste erakunde batzuetan dirulaguntzak justifikatzeko, egotzi gabeko ehunekoagatik izan ezik.

Salbuespen gisa eta justifikatuta, justifikazio-epea luzatu ahal izango da, baldin eta Bilbao Ekintza EPELeko teknikariek egoki irizten badiote eta behar bezala arrazoituta.

### **6.6. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna.**

Onartu egiten da beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik

(estatukoak edo nazioartekoak) jasotako dirulaguntzak jasotzea, baldin eta dirulaguntza horien zenbatekoak, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gainditzen dirulaguntzari egotzitako gastuaren kostua.

## **7. BETEBEHARRAK, EZ-BETETZEAK ETA LAGUNTZAK ITZULTZEA**

### **7.1. Onuradunen betebeharrak**

- a) Bilboko Udalak egin beharreko egiaztapen- eta ikuskapen-jarduerak onartzea, eta eskatzen zaion informazio guztia ematea.
- b) Laguntza ematea eta jasotzea dakarten betekizunak eta baldintzak betetzen jarraitzea, bai eta jarduera egiten jarraitzea ere.
- c) Dirulaguntza jaso duen jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso bada, horren berri izan bezain laster jakinaraztea.
- d) Oinarri hauetan jasotako betekizunak betetzen direla egiaztatzea.
- e) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, onuradunari aipatutako dirulaguntza eman zaiola jakinarazi eta bost (5) eguneko epean beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badu, onartu duela ulertuko da.
- f) Jasotako funtsa itzultzea Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan; bereziki, dirulaguntza lortzeko baldintzak faltsutuz edo hura eragotziko luketen datuak ezkutatu lortu bada, edo 38/2003 Legearen (azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra) 14. artikuluan aurreikusitako egiaztapen- eta finantza-kontrolako jardueri aurre egiteko erresistentzia, aitzakia, oztopo edo ukoa erakusten bada
- g) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan zehazten diren gainerako betebeharrak betetzea.

### **7.2. Ez-betetzeak eta laguntzak itzultzea**

Laguntza emateko arrazoietakoren bat desagertzen bada edo hartzaileek dagozkien betebeharretakoren bat betetzen ez badute, laguntza-programatik kanpo geratuko dira eta ordaintzeko falta diren zenbatekoak jasotzeko eskubidea galduko dute. Halaber, Bilbao Ekintza EPEL erakundeak, bere aldetik, ordura arte kobratutako zenbatekoak itzul ditzatela eskatu ahalko die.

Ez-betetzea, proiektutik kanporatzea, horren ondoriozko dirua itzultzeko betebeharra eta ordaintzeke dauden laguntzak jasotzeko eskubidearen galera Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzaren ebazpen bidez deklaratuko dira. Ebazpen hori eman aurretik, sozietatearen zerbitzu teknikoak horri buruzko txostena egingo du.

## **8. ONURADUNEN INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA**

Bilbao Ekintza EPELek hartzen duen konpromisoaren arabera, haren jarduketa-programetan jarduten duten langileak programa horietako onuradunei buruzko edozein informazioaren jakitun suertatzen badira, informazio hori programaren xedeak burutzeko baino ez dute erabiliko. Horregatik, programak garatzeko kanpoko aholkulariek parte hartu behar dutenean, Bilbao Ekintza EPELek konfidentzialtasun-konpromisoa eskatuko die horiei, eskura duten informazioaren tratamenduari dagokionez.

## **9. AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA**

Deialdi honetara bideratutako zenbatekoa HIRUROGEITA HAMAR MILA EUROKOA da (70.000 €), indarrean sartzen denetik 2027ko abenduaren 31ra arte. Diru-izendapen hori agortuz gero, eta betiere aurrekontu gehigarriak badago, zenbateko hori % 50eraino handitu daiteke deialdia indarrean dagoen bitartean. Erakundeko presidentetzak zehaztu ahal izango du gehikuntza, eta Administrazio Kontseiluari horren berri emango zaio hurrengo bilkuran.

## **10. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA**

Orokorrean, onartutako dirulaguntzaren zenbateko osoa justifikatu baino lehen ordainduko dira dirulaguntzak (6.5 apartatuan adierazitakoaren arabera), eta inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzari atxikitako jarduerak aurrera eramateko beharrezko finantzaketa gisa.

Emandako dirulaguntza banku-transferentziaren bidez ordainduko da, aurkeztutako banku-datuen fitxan agertzen den kontu korrontean.

Dirulaguntzaren ordainketa ez da egingo baldin eta erakunde onuradunak dirulaguntzaren bat justifikatzeke badu eta horren justifikazio-epea amaituta badago. Halaber, dirulaguntza ez da ordainduko, pertsona edo erakunde batek aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

### **11. BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA**

Bilbao Ekintzatik jaso daitezkeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuenekin. Nolanahi ere, dirulaguntzen eta beste iturri batzuen bidez lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezingo da izan dirulaguntzari egotzitako gastuaren kostua baino handiagoa.

### **12. DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA**

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak udalaren webgunean argitaratuko dira.

Era berean, dirulaguntzen publizitatea Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez egingo da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

### **13. PROGRAMAREN INDARRALDIA.**

Deialdi hau haren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2027ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, edo aurrekontuko diru-izendapena agortu arte, baldin eta epe hori baino lehen egin bada.

### **14. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA**

Oinarri hauetan aurreikusitakoaz gain, honako hauetan xedatutakoa beteko da:

- Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko bere erakunde eta entitateek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO).
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.

Era berean, dirulaguntzen arloan honako hauek xedatutakoa aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta gainerako araudi osagarriak.

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa, (I. titulua).
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

### **15. INTERPRETAZIOA, GARAPENA ETA ALDAKETA**

Bilbao Ekintzak eskubidea du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdi honetako punturen batean zerbait garatu, aldatu, egokitu edo kendu behar izanez gero, funtsa aldatu gabe, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusiari ematen zaio aldaketa horiek egiteko eskumena, baina Administrazio Kontseiluari horren berri eman beharko dio neurriak hartu ondoren egiten den hurrengo bileran.

Zehazki, eta programaren aplikazio-eremuan hiriko kale edo zonalde gehiago sartzeari dagokionez, deialdi honen bigarren atalean xedatutakoaren arabera, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusiak izango du zabalkunde horren baldintzak zehazteko eskumena. Neurri hori hartzea erabakiz gero, Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaio, neurria hartu osteko lehen bileran.

**HUTSIK DAUDEN LONJAK AKTIBATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMAREN OINARRI  
 ARAUTZAILEAK  
 2026  
 LAGUNTZA ESKABIDEA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

**1. Eskatzailearen identifikazio-datuak (eskatzailearen forma juridikoaren arabera betetzeko)**

*Pertsona fisikoa bazara*

Eskatzailearen datuak

Izen-abizenak:
NANa:

*Ondasun-erkidegoa (CB), sozietate zibila (SC) edo nortasun juridikorik gabeko taldea bazara*

Eskatzailearen datuak

Izen soziala:
CB, SC edo nortasun juridikorik gabeko taldearen IFK:
Ordez kariaren izen-abizenak:
Ordez kariaren NANa:

*CB, SC edo nortasun juridikorik gabeko taldearen kideen datuak*

**1. bazkidea**

Izen-abizenak*	
NANa/IFK	
Dirulaguntzaren % **	

**2. bazkidea**

Izen-abizenak*	
NANa/IFK	
Dirulaguntzaren % **	

**3. bazkidea**

Izen-abizenak*	
NANa/IFK	
Dirulaguntzaren % **	

\* CB, SC-ko kidea pertsona juridikoa izanez gero, adierazi haren izen soziala. Errepikatu behar adina.

\*\* CB edo SC-n duen errenten esleipen-ehunekoa.

### Enpresa bada

Eskatzailearen datuak

Enpresaren izen soziala
Enpresaren IFK:
Legezko ordezkariaren izen-abizenak:
Legezko ordezkariaren NANA:

## 2. Errentamendu-kontratuaren datuak

Zenbait enpresak (autonomoak, ondasun-erkidegoa –CB–, sozietate zibila –SC–edo nortasun juridikorik gabeko elkartea eta/edo pertsona juridikoa) lokala partekatzen badute, eta errentamendu-kontratuan jasota badaude bakarrik:

Titularraren izena	Azaleraren erabileraren %	Hileko kuota eurotan (BEZik gabe)	Sinadura
GUZTIRA	% 100		

## 3. Abalen datuak

Abalatutako zenbatekoa:
Abal-kostua:

## 4. Bankuko datuak

Dirulaguntzaren onuradun izanez gero, onuradunari zuzenean ordaintzeko bankuko datuak honako hauek dira:

Kontuaren titularraren izen-abizenak/izen soziala:
Finantza-erakundea:

IBAN	Erakundearen kodea	Sukurtsalaren kodea	kontrol-digitua	Kontu-zenbakia



unetan.

- h) Deialdi honetako 4. eta 5. apartatuetan adierazitako beharrezko baldintzak betetzen dituela. Pertsona juridikoen kasuan, beren-beregi adierazten dut mikroenpresa edo enpresa txiki gisa kalifikatua izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela.
- i) Dirulaguntza-deialdi honen esparruan aurkeztu duela eskabidea, eta, gainera, deklarazio honekin batera oinarrien 9. apartatuan deskribatutako dokumentazioa aurkeztu duela.
- j) Prozedura honetatik eratorritako jakinarazpen guztiak helbide elektronikoen bidez egiteko baimena ematen duela:.....

**Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak:**

- k) Egunean ditudala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Bilboko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eskatzen duten bezala, dirulaguntzen onuradun izateko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua aplikatuz, Bilboko Udalak beharrezko kontsultak egingo ditu administrazio honen edo besteren baten esku dauden datu hauei buruz, aurretik adierazitako dirulaguntza lortzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Honako zerbitzu hauei kontsulta egingo zaie:

- Bizkaiko Foru Aldundia
- Zerga-betebeharrak egunean dituela kontsultatzea. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko betebeharrak egunean dituela kontsultatzea.

Ez dut baimenik ematen kontsulta hauek egin daitezen ( Bizkaiko Foru Aldundia -  Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia -  Bilboko Udala), honako arrazoi hauen ondorioz:

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

**Sinadura.**

---

**\*\*DATUEN BABESA**

Datuak babesteko indarreko araudiak xedatutakoarekin bat etorriz, Bilbao Ekintza EPELe jakinarazten du deialdi honetako eskarrietan jasota dauden datu pertsonalak Bilbao Ekintza EPELe tratatuko dituela (sozietateak Bilboko (48001) Nafarroa kaleko 5. zenbakian dauka helbidea), eta tratamenduaren helburua izango da eskatutako laguntzak eta/edo dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzea.

Datuak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira datuak.

Tratamendu horien oinarria tratamenduaren arduradun den Bilbao Ekintza EPELi emandako botere publikoak egikaritzea da.

Ez zaizkio datuak beste inori emango, legez derrigorrezkoa bada izan ezean. Ez da datuen nazioarteko igorpenik egingo.

Hauexek dira interesdunen eskubideak:

1. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko edo tratamenduaren aurka agertzeko eskubidea, tratamenduaren arduradunaren helbidera idatzi bat bidaliz, nortasuna alde aurretik egiaztatuta.

2. Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamatzeko eskubidea

BILBAO EKINTZA EPELek egiten duen datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan [datos@bilbao.eus](mailto:datos@bilbao.eus) helbide elektronikoaren bidez eta eskatu datu pertsonalen tratamendu honi buruzko informazio gehiago.

#### UDALAREN EDO BESTE ADMINISTRAZIO BATEN ESKU DAUDEN DOKUMENTUAK EGIAZTATZEA

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunak EZ du aurkeztu behar Bilbao Ekintza EPELen edo beste administrazio publiko baten esku zegoen dokumentazioa; izan ere, Bilbao Ekintza EPELek kontsultatu eta eskatuko ditu dagozkion dokumentuak, **salbu eta kontsulta horren aurka egiten badu beheko laukia markatuz**. Kasu horretan, interesdunak dokumentazio hori aurkeztu beharko du.

Ez dut baimenik ematen kontsulta hauek egin daitezen ( Bizkaiko Foru Aldundia -  Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia), honako arrazoi hauen ondorioz:

---

---

---

Behean sinatzen duenak bere gain hartzen du jasotako datuen egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura

Bilbon, 202....(e)ko .....aren .....(e)(a)n